



LANBIDE-GAIKUNTZAK

EGUNGO EGOERA
ETA JOERA BERRIAK

Laburpen exekutiboa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

LABURPEN EXEKUTIBOA

Gizarte garaikidearen bilakaerak eta modernizazioak egungo gaikuntza profesionalak eta prestakuntza-sistemak egokitzeko premia dakar berekin, gero eta konplexuagoa den sistema ekonomiko batean sortzen diren premiei erantzuteko. Testuinguru horretan, kultura-lanbideek modu espezifikoan berritu behar dituzte beren profesionalen gaikuntzak, kultura-sektoreari lotutako balio-katearen maila bakoitzeko askotariko premiei erantzunez.

KSlen esparruan eskatutako gaikuntza berriak aztertzeke helburuarekin planteatzen da txosten hau. Horretarako, prestakuntza-premia eta gaikuntza berrien azalera eragin duten aldaketa nagusiak aztertzen dira, eta, horrekin batera, Europan egiten ari diren jarduketak, euskal testuinguruan eta KSletan duten inplikazio konkretua, eta etorkizuneko joerak eta ekintza-gomendioak.

Hezkuntza-sistema osoan (formala, ez-formala eta informala) aldakuntzak eskatzen dituzten gizarte-arloko aldaketa handiek gaikuntzetako eskakizun berriak eragiten dituzte, lanbide-profil berriak lan-merkatuko eskakizun berrietara egokitzeko.

Informazioaren gizartera igarotzea	Eskatutako kompetentziak eta lan-sistemak aldatzea dakar ezagutzaren edo informazioaren gizartera igarotzeak. Informaziorako eta ezagutzarako sarbideak izan duen demokratizazioarekin aldatu egin dira jarduera sozio-laboralen multzo handi bat garatzeko premia eta eskakizunak.
Digitalizazio-prozesua	Ekonomiaren digitalizazioak afektazio bikoitza du gaikuntzei dagokienez, ezen, lehenik, lan-esparruan teknologia digitalak hartzean langileek beren lana garatzeko behar dituzten gaitasun, abilezia eta kompetentziak birdefinitzen ditu eta, bigarrenik, produkzio-prozesu jakin batzuk automatizatzea ahalbidetzen du, kasu gehienetan prestakuntza gutxi eskatzen duten lanpostuak suntsituz.
Globalizazioa	Globalizazioak deslokalizazio- eta espezializazio-prozesuak ahalbidetzen ditu lan-esparruan, eta erregioen eta herrialdeen arteko interkonexioa sustatzen du, lan-eskari eta lan-eskakizun berriak azalaraziz.
Aldaketa demografikoak	Hainbat urtetatik hona ikusten ari garen joera demografikoetako aldaketek –hala nola biztanleriaren zahartzea, jaiotza-tasa gutxitzea, ama izateko adina atzeratzea, bizitza-luzera handitzea, eta abar– ondorio garbiak dituzte sistema ekonomikoan eta, horrenbestez, biztanleriaren gaikuntza-eskakizunetan.

Aldaketa horiek eragin argia dute testuinguru sozial eta ekonomikoan, eta prestakuntza-eskakizunak birkonfiguratu dituzten ondorio pedagogikoak dituzte.

1. Hazten ari da ikasten ikastearen abilezia garatzeko garrantzia, eta funtsezkoa bihurtu da bizitzan zeharreko ikaskuntza.
2. Aldaketak gertatzen ari dira prestatzeko eta gaikuntza profesionalak birziklatzeko aukera eta metodologietan.

Joera pedagogikoak aldatzeaz gain, azken hiru hamarkadetan gertatutako gizarte-aldaketak lan-merkatuan eskatutako abilezia eta gaitasunak bilakarazi ditu.

Tradizionalki, lan-merkatuan eskatutako gaitasunen tipologiak bereizi izan dira, *hard skills* eta *soft skills* deitutakoen artean banatuz.

Hard skills deitutakoak prestakuntzaren eta lanbide-esperientziaren bidez hartzen diren arlo teknikoko eta ezagutza espezifikoiari lotutako gaitasunak dira, eta **soft skills** deitutakoak, aldiz, nortasunari eta langilearen gizarte-abileziei lotutakoak dira.

Sailkapen tradizionalago honetaz gain, badira lan-merkatuan gaur egun eskatutako gaikuntzen tipologia bereiztea ahalbidetzen duten beste sailkapen batzuk.

Gaitasun kognitiboak eta metakognitiboak

Hartutako ezagutzen eta ikasteko gaitasuna ahalbidetzen duten pentsamendu-estrategiei egiten diete erreferentzia gaitasun kognitiboak, eta gaitasun metakognitiboak ikasten ikasteko eta ezagutzak berak ezagutzeko abileziak hartzen dituzte barnean.

Gaitasun sozialak eta emozionalak

Pertsonen garatzea eta beren harremanak ingurune guztietan lantzea ahalbidetzen dieten sentimenduen, pentsamenduen eta lotutako gaitasun indibidualei egiten diete erreferentzia.

Gaitasun praktikoak eta fisikoak

Funtzio fisiko jakin batzuk egiteko gaitzen dutenak dira abilezia fisikoak, eta abilezia praktikoak, aldiz, materialak, erremintak, ekipamenduak, eta abar, erabiltzeko eta manipulatzeko beharrezkoak direnak, helburu jakin batzuk lortzera bideratutakoak.

Egungo testuinguruak lan-merkatu orokorrean gehien eskatutako gaitasun motak aldarazi ditu. Joera nagusi gisa, zenbait funtsezko puntu dira nabarmentzekoak:

1. Errutinazko zereginak suntsitu dituzte teknologia informatikoen, baina lotzen zaizkien enplegu-aukera berriak sortu dituzte, non sormena, abilezia sozialak eta abilezia emozionalak oso garrantzitsuak diren.
2. Lehiakortasunari eusteko, abilezia eta gaitasun berriak hartu behar dituzte etengabe langileek, eta horrek malgutasuna, jarrera positiboa eta proaktiboa eskatzen ditu ikaskuntzarekiko eta jakin-minarekiko.
3. Abilezia sozialak eta emozionalak gero eta funtsezkoagoak dira, baita kognitiboak baino funtsezkoagoak ere dinamikoak den eta etengabeko aldaketan dagoen testuinguru honetan.

Lanbide-gaikuntzen bilakaera orokorra azaltzeaz gain, aldaketa-joerek kultura- eta sormen-industrien sektorean izan duten eraginean ardatzen da txostena.

Merkataritza-ereduetan izandako aldaketak, teknologia berriak hartzea edo nazioartekotze orokorra dira kultura-sektorean lan egiteko beharrezkoak diren abilezia eta gaitasunen multzoa handitzea eta berritzea eskatzen duten faktoreak. Sektoroko ezaugarri propioek bereziki garrantzitsu egiten dute gaikuntza espezifikoaren garapena hiru ekintza-esparrutan. Lehenik, langileek gerentziarekin eta enpresa-ingurunearekin lotutako gaitasunak nahitaez garatu beharra dakarte egungo autoenpleguko eta lan autonomoko tasa handiek. Bigarrenik, digitalizazioaren aurrerakadak langileen gaitasun digitalak sektore osoan eguneratzeko premia dakar eta, hirugarrenik, sormenarekiko loturak eta etengabeko berrikuntzaren premiak adierazitako sormen-gaitasunak beren alderdi guztietan garatzeko premia dakar. Modu zabalagoan, honako hauek dira gaur egun KSlen sektorean eskatutako abilezia eta gaitasun nagusiak:

Gaitasun teknikoak	Jarduera-azpisektorearen ezagutza espezifikoarekin lotuagoak dauden abilezien erreferentzia egiten dute.
Gaitasun digitalak	Parte-hartzearen demokratizazioa eta kultura-produkzioa errazten du digitalizazioak eta proiektu artistikoetan sortzea, partekatzea eta lankidetzan aritzea errazagoa izatea ahalbidetzen du, baina zabaltzen diren aukera guztiek lotutako gaitasun espezifikoak garatzeko premia ere badakarte.
Komunikazio-gaitasunak	Adierazpen-gaitasuna eraginpean hartzen duten gaitasunak dira, giza harremanetan zein bitarteko birtualetan.
Enpresa-gaitasunak	Enpresa-negozioko eta enpresa-kudeaketako ereduak buruzko ezagutzari lotutako abilezia gogorrek zein negoziazio- eta lidergo-gaitasunarekin lotutako abilezia bigunak eskatzen dira.
Autoprestakuntza-gaitasunak	Ekonomiaren etengabeko aurrerakadak eta KSlen sektoreko garapen partikularrak langileentzat ikasten ikasteko abilezia garatzea beharrezkoa izatea eragiten du, etengabeko berrikuntzaren aldeko apustua eginez.

Lanbide-gaikuntzetako premiak zabaltzeaz gain, digitalizazio-prozesuko aurrerakadak eta informazioaren teknologia berriek ere birmoldatu egiten dute prestakuntza- eta hezkuntza-eskaintza.

IKTen erabilera gero eta hedatuagoak, irekian emandako hezkuntzaren erraztasunak, denbora-eskakizunek eta aldaketen bizkortzeak, eta lan-merkatuko premiek prestakuntza modalitate berriak sortzea eta modalitate horiek indarra hartzea eragiten dute, hala nola nanoikastaroak, mooc ikastaroak, Internet bidezko ikastaroak, mikrograduak, mikromasterrak, mikrokredentzialen formalizazioa, eta abar.

Prestakuntza-premiak lan-merkatuaren premia berrietara lotzeko eta egokitzeko eskakizuna dela-eta, ekintza-agendak lantzen ari dira Europako erakundeak, hala nola **GAITASUNEN EUROPAKO AGENDA**. Agenda horrek paradigma-aldaketa bat sustatzen du gaitasunen arloan Europan trantsizio digital eta ekologikoa bultzatu eta pandemia osteko susperraldia helburu hirukoitz batekin bermatuko duena: lehiakortasun jasangarria indartzea, gizarte-ekitatea bermatzea eta erresilientzia indartzea.

Bizitza osoan zehar europar guztiek ikaskuntza- eta prestakuntza-programetara sarbidea izateko borondatearekin planteatzen da agenda hau, programa horien bidez beren gaitasunak eta abileziak birziklatzeko eta berritzeko aukera izan dezaten. Etengabeko prestakuntzaren eta bizitzan zeharreko ikaskuntzaren aldeko apustua argia eta garbia bada ere, datuek erakusten digute gaur egun oraindik bost pertsona heldutatik bik baino gutxiagok parte hartzen dutela ikaskuntza-jardueretan urtero.

Agenda honetan bildutako ekintzen artean, 2022ko apirilean onartu zen **KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIETAKO KOMPETENTZIEN EUROPAKO ITUN BERRIA**, sektore horretako profesionalen gaikuntzak hobetzeko eta haien birziklatzea ahalbidetzeko.

Europaren ildo beretik, Euskadin ere ekintzak bultzatzen ari dira lanbide-gaikuntzek KSlen eskakizun berrietara izan beharreko egokitzapena errazteko. Esparru horretan ekintza espezifikoak garatzen dituzten agenteen artean honako hauek nabarmentzen dira:

KSigune 2021ean bultzatutako kluster bat da, administrazio publikoa buru duena eta enpresak, entitateak, unibertsitateak eta ikerketa-zentroak lotzen dituena ikasleak, profesionalak, erakundeak, prestakuntza-zentroak eta akademiak konektatzeko helburuarekin, jarduketak garatzeko goi-mailako prestakuntzaren esparruetan, ikerketan, berrikuntzan eta transferentzian, eta KSlen sektorean egun dauden premiekin ere lotuta betiere.

INNOBASQUE Euskadiko berrikuntza-agentzia da eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean sartuta dago. Eusko Jaurlaritzari berrikuntza-politiken diseinuan, inplementazioan eta bultzadan laguntzeko sortu zen agentzia, eta berrikuntza sustatzeko lan egiten duten euskal erakundeei babes estrategikoa eta teknikoa emateko helburuarekin hedatzen da. Ekintza ugari egiten ditu helburu horrekin hainbat ekintza-alorretan, baita enplegurako gaikuntzan ere.

LANBIDE da enplegu euskal zerbitzua, eta prestakuntza eskaintzen du enplegu-posibilitateak hobetzeko eta lan-kompetentzia sektore ugarietan gehitzeko.

PROFESSIONAL ASSOCIATIONS balizko agenteak dira, eta haietan oinarrituta lanbide-sektore bakoitzaren gaikuntza-neurri konkretuak aztertu daitezke, elkartekideen prestakuntza-premiak zein diren jakin, diagnostikoak egin, eta gaitasunen prestakuntza- eta egokitzapen-ikastaroak eskaini.

Egindako azterketa hobetzeko eta gaikuntza profesionalak berritzea eta hartzea errazteko zenbait gomendioarekin amaitzen da, langileei zein sektoreko erakundeei zuzendutakoak. 7 jarduketa-esparrutan biltzen dira gomendio horiek:

1. Curriculumak egokitzea
2. Sektoreko profesionalentzako prestakuntza-eskaintza
3. Mikrograduak
4. Bekak eta espezializazio-programak bultzatzea
5. Industria-doktoregoak
6. Lantokietan prestakuntza sustatzea
7. Akreditazioak sustatzea



Amaitzeko, KSlen sektoreko lanbide-gaitasunak eguneratzeari begira, langileei etengabeko prestakuntza ahalbidetuko dieten jarduketa espezifikoak burutu behar dira, eta, horretarako, gaikuntzaren exijentziak prestakuntza jaso behar duten pertsonen eskakizun eta premietara egokitu behar dira. Lanbide-gaikuntza berrien premia argi eta garbi ari da aldatzen, eta zenbait gaitasun –hala nola talentua, erresilientzia edo egokitzeko gaitasuna– gero eta gehiago balioesten dira bilakaera eta aldaketa etengabe dagoen enpresa- eta ekonomia-ingurunean.

Lan-merkatua oro har eta kultura-sektorea bereziki izaten ari diren lanbide-gaikuntzetako egungo premien bilakaera ulertu nahi duten kultura- eta sormen-industriei (publikoak zein pribatuak) lotutako erakundeentzako abiapuntu izateko helburuarekin diseinatu da txosten hau.

Txostenean lanbide-gaitasunak eguneratu behar izatea eragin duten ezaugarri eta testuinguru-aldaketa nagusiak azaltzen dira, eta, horrekin batera, prestakuntzari dagokionez gaur egun ikusten diren joerak, KSlen esparruan gaur egun gehien eskatzen diren gaikuntzak eta abileziak, European burututako jarduketak, Euskadin jarduketak garatzen ari diren agente nagusiak eta ekintza bideratzeko zenbait gomendio sektoreko profesionalen gaikuntzak hobetzeari lotutako aldaketak bultzatu nahi izanez gero.

